



## EUSKARALDIA 2018

### Zer da Euskaraldia?

Euskaraldia, Euskal Herri osoan burutuko den ekimen bat da. Bere helburua, euskaraz hitz egiten dakiten euskaldunak edo euskaraz ulertzen dutenak aktibatzea da, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, euskararen erabilera erraztu eta bultzatzea. Euskara erabiltzeko dauden aukerak agerian jarri eta aprobetxatzea da helburua.

### Nork sustatzen du Euskaraldia eta nori zuzentzen zaio?

Ekimen honen sustatzaileak, erakundeak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Udalak) eta euskalgintzako gizarte eragile desberdinak dira eta gizarte osoari zuzenduta dago.

Merkataritza sektoreak hizkuntza ohituretan daukan garrantzia eta eragina kontuan izanik, Bilboko Udalaren Biribilko Egitasmoak ekimen honen garapena lagundu eta erraztu egingo du.

### Nola har dezakezu parte Euskaraldian?

Ekimen honetan parte hartu ahal izateko euskaraz hitz egiten jakin behar da edo gutxienez, ulertu egin behar da.

Ekimen honetan parte hartzeko prest dauden pertsonak ondoko bi rol edo funtzio hauetako bat hartu behar dute:

- **Ahobizi:** euskaraz hitz egiten dakitenak dira eta euskaraz egiteko prest daudenak ulertzen dutenei edo lehen hitza euskaraz esateko ezezagunei, euskarazko jarduna errazteko asmoz.
- **Belarriprest:** euskaraz ondo hitz egiten ez duten arren, ondo ulertzeko gaitasuna dutenak dira eta prest agertzen direnak euskaldunek euskaraz hitz egin diezaieten, nahiz eta eurek gaztelaniaz erantzun.

Ekimen honetan parte hartzeko interesa duten establezimenduak eta pertsonak identifikatzeko erabiliko diren euskarriak (kartelak, pin-ak...), eskuragarri daude jada.

### Zer egin behar duzu informazio gehiago eskuratu eta ekimen honetan parte hartzeko?

Informazio gehiago nahi baduzu edo ekimen honetan parte hartzeko interesa baduzu, ondorengo komunikazio-kanalak erabil ditzakezu:

- Posta elektronikoa: [bilbon11egun@gmail.com](mailto:bilbon11egun@gmail.com)
- Telefonoa: 629 90 93 75 (harremanetarako: Julen Orbea)
- Ondoko web orrira ere jo dezakezu: [www.bilbo.euskaraldia.eus](http://www.bilbo.euskaraldia.eus)

Zinez eskertuko genizuke, ekimen hau zurekin lan egiten duten beste langileen artean zabalduko bazenu. Horrela, interesatuta dauden pertsonak parte hartzeko aukera izango dute.

Eskerrik asko.